

TUTORETZA

IKASLEEN JARRAIPENA

Ikasleak astero tutorearekin elkartzen dira tutoretza plana aurrera eramateko: integrazioa, talde dinamika, ikasketa teknikak, agendaren erabilera,... Bestetik, ikasleren bat klasean ez bada agertzen eta idatzizko ohar egoki bat aurkezten ez badu, gurasoekin harremanetan jartzen gara. Irakasleek hutsegiteen zerrenda gaurkotua izaten dute. Klase ordutan eta atsedendietan ikasleek institututik ateratzea debekatua dute. Atsedendietan sei irakasle eta zuzendaritzako partaide bat zaintzan egoten dira.

Ikasleen jarraipenaren ardatza guraso eta tutoreen arteko harremanetan dago. Informazio trukaketak hezkuntza prozesuan aldeko ondorio nabarmenak izaten ditu.

TUTOREEN ETA FAMILIEN ARTEKO HARREMANA

Urriko lehenengo astean bilera kolektiboak egiten dira gurasoekin ikasturtearen planteamenduak, proiektuak eta garapena azaltzeko. Elkarrizketa pertsonalak egingo dira egokitzat hartzen denean, gurasoek edo irakasleek hitzordua eskatu ondoren.

KOMUNIKAZIOA FAMILIEKIN: ESKOLA AGENDA ETA TUTOREEN POSTA

Irakasleek ordubete daukate astean familiak artatzeko. Hitzorduak aurretik adostu beharko dira, agendaren, posta elektronikoen, ikaslearen edo tutorearen bitartez, baita telefono bidez ere.

ESKOLA AGENDA

DBHko ikasle guztiek eskola-agenda bat izango dute, eskola guztietara egunero eraman beharko dutena eta irakasleak familiekin eta familiak irakasleekin harremanetan jartzeko orri batzuk dituen.

DBHko TUTOREEN POSTA ELEKTRONIKOKO KONTUA

Familiekin komunikazio eraginkor eta arina ezartzeko, DBHko tutoreek posta elektronikoko kontua daukate. Familiak alait lasterren helaraziko dio bere **helbide pertsonala** tutoreari. Tutoretzaren berezko deialdiez, hitzorduez, oharrez eta antzekoez gain, ikastetxearen edo irakasgaien zirkularrak, dokumentuak eta abar bidaliko zaizkie familiei.